



# PRUDENTZIO ETXEZARRETA, KATABERAN MIÑERO

**Harriurdin mendixaren magalian, Kataberan, lurrari miñeralak etarateko ekinian, bere barruak azterketan, zenbait oñatiarrek jardun izan ebela orain dala 65 bat urte arte, herritar askorendako ezezaguna izango da.**

**Garai honen barri jasoteko, Murgiko Juanikogarrena baserriko semiarengana jo dogu. Prudentzio Etxezarretak 14 urteko mutiko-miñero baten testigutzaia eskiñiko dosku.**

**- Zela hasi zīnan lanian Kataberako miñetan?**

Orduan, beste iñun lanik ez, eta Murgittik gaztiak, bastante, hara lanera faten ziran. *Estenagakua* eguen enkargau eta hari esan notzan, artian 14 urte baino gehixago eneben eukiko. Lana emun nostain eta haraxe fan nintzan.

**- Noizko kontuak dira honeik?**

Orain dala 70 bat urteko kontuak. Miñetan lanian 1924an edo, hasiko nintzan.

**- Lanian gazterik hasi zīnan, gero!**

Bai, miñetan 14 bat urterekin, eta aurretik urtebete inguru Bitorixan erderaz ikasten egonda nenguen, tratante batekin, txarrixak mataderixara eruan eta holako lanak egitten.

**- Noiz arte egin zebeñ lana Kataberan?**

Itxi arte. Gero tellerixara pasau nintzan.

**- Ze etaraten zebeñ miñetatik?**

Miñerala; zinka eta plomua bastante.

**- Miñazulo bakarra zan?**

Ez, bi ziran, goikua eta behekoa eta bixak tunelen bidez lotuta egozen. Pentsau ze tamaiñu eukiko ebein tunelak, karril gaiñeko bagonetari pul-



**- Ze lan diferente egitten zebeñ?**

Hogei inguru izango giñan lanian genbitzanok. Horreittatik zortzi batek edo barruan lana egitten geben, aldiko biñaan. Bagonetiari pultzaka zuluau aurrera jo miñeral billa, zakarra etara eta aurrera, goixairi, fallua baeukain, egurrezko kua-drua ipiñi eta miñerala agertutakuan kanpora etara pillaketako. Aparte beste langille batek koiñero-lanak egitten zittuan.

**- Zuluau zela egitten zebeñ?**

Pikatxoiaz, eta dinamitia be ebalten geben.

**- Dinamitia?**

Bai, biharra izan ezkeru, edo zeñiek ipintten eben.

**- Miñeralarekin ze egitten zan?**

Kanpora etara, miña aurrekaldian pillatu, eta gero astian behin edo birritan Udanara biaketan zan kable gaiñeko baldetan. Handik berriz kamioietan, miñerala zakarretik separaitteko beste nunbaittera eruaten ebein.

**- Miñerala bajaitteko sistemiak zela funzonaitten eben?**

Lau kable egozen botata Kataberatik Udanara: bi baldiari goittik eusteko eta beste bixak baldia gaiñetik fate-

**M** iña barruko bi lekutan edo, Oñatiko parrokiaren besteko zuluauk egozen.

*Begoña*



*Mertzeria*

Atzeko kale, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI

*Begoña*



*Edertasun Zentrua*

- Sorlariuma
- Pedikurak
- Depilazioak
- Tratamendu fazial eta korporalak

Atzeko kale, 6 Tfnoa: 78 21 14 OÑATI



**SAN MIGUEL**


**Kooperatiba**

Supermerkatua: Kale Barria, 8.

Tfnoa: 78 12 17

Mendirako tresnak: Kale zaharra, 27.

Tfnoa: 78 17 82



Minerala Udanara eruateko sistemía.



*Udanara - Zumárraga, Euzkadi*  
Ordainketa egunian Kataberara fateko gertu, eskolta eta guzti.

ko. Goiko kabliak senduak ziran, behekuak, berriz, koska batzuk eukain. Balde asko ziran, batetik bestera metro batzutako tartia jareta. Behera beteta zixoianaren kontrapixuak behetik hutsik etorrena jasoten eben.

**- Miña barruko lanetarako txandau edo egitten ziñain?**

Ez, ez, goizian zortziretan sartu bai, eta hamabixak arte; arratsaldian, berriz, ordubittatik seirak arte. Batzuk puntuan-puntuan bagoiarekin kanpora, bestioek egun osuan barruan.

**- Akzidentiak be izango ziran ba?**

Bai izaten ziran, baiña hildakorik ez geben izan. Neri kabliak bihurtzak arrapo nostain eta, Udanako tabernan apopillo 15 bat egun egin nittuan,

**M**

*ñetan lanian  
ibillitako beste  
iñor bizi danik  
enaiz akordai-  
tten.*

kurak egittera Legazpira oiñez fan bihar izaten neben eta.

**- Tunelak seguruak ziran?**

Bai, bide askuan haitza dago eta. Tunela hundittia neri etxaten tokau, hori bai, egurren zirti-zartak askotan entzuten gittuan.

**- Egunero etxetik fan-etorrixa egitten zebein?**

Ez, astia bertan pasaiten geben; zapatuan bajaitten giñan behera eta astelehenian gora. Han goixan, itxabola haundi bat geukan langillioek eta enkargauak aparte egozen. Jatorduak be bertan egitten gittuan.

**- Zenbat kobraiten zebein garai horretan?**

Zela esango dotzut ba, ze

kobraiten zan? Eztakitt; taillerretan baiño gutxiago, seguruenez. Janëna kentzen oskuein, eta azkenian, emuten ebeña emuten ebeilla, konformau egin bihar.

**- Langillioak oñatiarrak ziñain?**

Parte bai; bestiak Zerain, Segura aldekuak ziran. Oñatiarrik, han ibillittakorik beste iñor bizi danik enaiz akordaitten. Gehixenak Murgixa auzoko mutikuak giñan; *Estenagako* hiru anae: Ximon, Roke eta kanpora fan zan beste bat; *Korriueneko* bi, nerekin barruan ibilli zana eta enkargaua; *Bixaingo* hiru, bi anae Iñazio eta Amiño, eta hirugarrena Pedro; *Murgialdaiko* Dionixio; *San Jurgikua*; eta kaletarra *Artzubixako* semia zana

**K**

*ataberan 14 urte-  
rekin lanian hasi  
aurretik, Bitori-  
xan erderaz ikas-  
tera fanda urtebe-  
te inguru egon  
nintzan.*

**Z**

*ulua egindda gero,  
goixa aseguraitteko,  
egurrezko kuadrúa  
ipinttera aurrera  
sartu biharra egoten  
zan. Lan hau akabo  
bittartian, zaratak  
eta harri-jaustiak  
bilddur pittin bat  
be emuten ebein.*

**JON**  
**ARGAZKIGINTZA**  
Kale Barria, 28 behea  
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI

**ARANBURU**  
Pintura orokorreen  
Garbidenda  
Paper margotuak  
Koadroetako marko denda  
Kale Barria, 47. Tfnoa: 78 19 99 OÑATI

**ALICIA**  
Artisau lan exotikoak  
Keramika  
Zurezko gaiak  
Arropa, Larrua  
Apainketa  
Barkagune kalea, 13  
OÑATI